

Espediente moetea: Administrazio kontratazioa

Kontratua: Hornidura kontratua, prozedura negoziatuaren bidezkoa, publizitateagaz.

Espediente zenbakia: 2011-01

LOTE 1.- BERMEOKO UDALARI PAPERA HORNITZEKO KONTRATAZIOARAKO BALDINTZA PLEGU TEKNIKOA.

A1.- KONTRATUAREN OBJEKTUA.

Bermeoko Udalarentzat papera hornitzea da kontratu honen objektua.

B.- LOTEAREN DESKRIBAPENA

Parentesi artean agertzen dan zenbakia, urteko gutxi gora-beherako kontsumoari erreferentzia egiten deusola ulertuko da.

500 orriko paketeak. ERABILERA ANITZEKO PAPERA, FOTOKOPIAGAILU, INKJET, LASER ETA FAX. DIN-A4 Ekologikoa zuria 100% kloro bakoa TCF. Gramajea 80gr.

(2050)

500 orriko paketeak. FOTOKOPIAGAILURAKO PAPERA. DIN-A3 Ekologikoa zuria %100 kloro bakoa TCF. Gramajea 80gr

(50)

PAPERAREN EZAUGARRIAK:

%100 KLOORO BAKOIA – TCF.

Paperaren iraunkortasuna: ISO 5630-1:1991 arauaren, Alemaniako DIN 6738:1999 [LDK 24-85] arauaren edota baliokidea den beste arau baten arabera, 100 urtetik gora iraun behar du.

Europako EN 12281:2003 arauaren edo baliokidea den beste arau baten arabera, paperak inprimatzeko eta fotokopiatzeko baldintza teknikoak bete behar ditu.

Paperaren zurtasun maila %70, ISO 2470:1999 ren arabera.

Aipatutako ezaugarriak kreditatzeko, lizitatuzaileek agiri guztiak aurkeztu beharko dabez eskaintzagaz batera.

Lehentasuna emongo jake ondorengo eskaintzei: FSC edo horren baliodun ziurtagiri ekologikodun paperari edo paperaren jatorria FSC, PEFC edo baliokideko ziurtagiridun baso-ustiapenetako egurretatik datorrena.

Bermeon, 2010eko irailaren 20an.

Erosketa saila.

